

Asentzio Laskurain Zabaleta

*Antzuola
Gipuzkoa (1923)*

Aurkibidea

Biografia



Lamarianoazpikoa baserrian
jaiotakoa, Lizarraga auzoan.
Soldadutzatik itzuli ondoren,
Bergaran hasi zen arotzeria
lanak egiten. 12 urtean bertan
jardun ondoren, Altos Hornosen
hasi zen lanean. Baserriko lanak
oso ongi ezagutzen ditu eta
azalpen sakon eta zehatzak
ematen ditu horien gainean.

Zintak

ANT-001

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Laskurain, Maripi
- **Data:**
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-002

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Laskurain Iturbe, M^a Kontxi
- **Data:** 1998-04-30
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-011

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Laskurain, Maripi
- **Data:**
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-037

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Laskurain, Maripi
- **Data:** 1996-10-10
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ANT-039

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Laskurain, Maripi
- **Data:**
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Audio Analog

ANT-063

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-08-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-064

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar

- **Data:** 2005-08-01
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Gerra garaian soldaduak eskolan egon ziren

- **Erref:** ANT-011/012
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:18:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaian eskolarik ez. Eskolan soldaduak. Umeak baserrian egiten zituen lanak.

2. Baserriko umeak eskolara

- **Erref:** ANT-011/013
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:18:35. **Bukatu:** 00:19:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Baserriko umeak. Eskolara zenbat urterekin.

3. Maristen eskola, izen handikoa inguru guztian

- **Erref:** ANT-011/014
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:19:25. **Bukatu:** 00:20:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Zer ikasten zuten. Maristek izen handia inguru guztian. Irakasle onak.

4. Maristen arropak baserrietan garbitzen zituzten

- **Erref:** ANT-011/017
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:23:55. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserrria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Maristei arropak garbitzen zizkieten baserrietan. Nola garbitzen zuten arropa.

5. Lixiba nola egiten zuten

- **Erref:** ANT-011/019
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:26:55. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropa nola garbitzen zuten. Sutako-hautsa.

6. Esaera zaharrak

- **Erref:** ANT-037/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:04:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

'Kandelario bero, negua gero'; 'Goizeko oskorriak, iluntzeko iturriak'; eta beste esaldi zahar batzuk.

7. Ostadarra edo ostarkua

- **Erref:** ANT-037/003
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:06:06

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Ostarkua esaten diote ostadarrari Antzuolan. Sulfatadoreekin lanean ere ateratzen da ostarkua. Apirileko trumoia, berrogei eguneko trumoia.

8. Okaran ondoak elurraren beldurrez

- **Erref:** ANT-037/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:10:42

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Etxeko okaran ondoak zabaltasun handia hartu dute, eta ale asko ematen dute, baina hurrengo elurteak apurtuko omen dituela dio Tomasek.

9. Txertatutako fruta-arbolak

- **Erref:** ANT-037/009
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:14:57. **Bukatu:** 00:16:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Erautza baserritik aspaldi ekarritako okaranak dituzte. Basoko urra oso txikia izaten da. Txertatu gabeko sagarrak ere oso koskorak dira; kuku-sagarrak esaten diete.

10. Artilezko koltxoiak

- **Erref:** ANT-037/013
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:34:21

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Artilearekin egindako oherako buruko eta koltxoiak erabiltzen ziren lehen. Astunak direlako eta lan asko ematen dutelako, gaur egun baserrietako ganbaretan daude. Artileak berak ere jada galdu du bere balio ekonomikoa.

11. Arto-malutekin betetako koltxoiak

- **Erref:** ANT-037/014
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:34:21. **Bukatu:** 00:37:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Artilearen aurretik, arto-maluta erabiltzen zen koltxoiak betetzeko. Maristak ere etortzen ziren arto-maluta eske.

12. Bizitzeko garai gogorra

- **Erref:** ANT-037/016
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:43:25. **Bukatu:** 00:45:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garai hartan Antzuolako bizimodua gogorra zen. Lau larru-lantegi zeuden, eta jornal eskasak. Gurdiak errepideetan, eta ganaduak eta txerriak kale-baserri guztietan. Okela zezinatuta gordetzen zen.

13. Ermandadearen lanak

- **Erref:** ANT-037/017
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:45:30. **Bukatu:** 00:47:01

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Erditzen hil edo gaitz batek jota ermandadean hiltzen ziren ganaduen okela, ermandadeko kideen artean banatzen zen. Gero zezinatu egiten zen.

14. Baserriko lanak: lurreta

- **Erref:** ANT-064/001
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Lurreta nola egiten zen. Polearekin, idiek gurdia behetik gora eramaten zuten. Urtean behin egin behar izaten zen lan hori.</p>

Transkripzioa

- Eta kargau, karrua kargau, eta holakotxe zangia eitten zan, metro erdiko zangia barrenian, eta haura gero karruak kablia zeukan souan gueneraiño. Ta gero irixak hartzen zeuben polea haura, gantxua ezarri eta irixa behetik gora nekatzen jun biharrian, goittik behera samur etortzen zan, poleak lana eitten eban eta karrua be samur juten da gora. Eta gero tranga bat eukitzen zeban hustutzeko, gantxu bat, eta haura disparuai eskuz erain alde batera eta blast!, alde batera hustu be itten zan. Automatikamente esateko moduan hustu itten zan karrua biher dan lekuan.

- Orduan esaten dozu lurretia eitten zala urtian behin?

- Urtian behin, bai ba. Eske lokatzia dauenian ezin leike jaso. Udan jaso bihar, lurra sekua bihar da jasotzeko, eta normalian ba sikua egoten da ba agostuan

15. Gari-jotzea Antzuolako plazan

- **Erref:** ANT-064/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

<p>Suinak duela bi urte garia erein eta Antzuolako plazan jende aurrean jo zuen. Igitaiaarekin, segarekin eta makinarekin ebaki; gari-azaoak lotu; metatu; garia jo.</p>

Transkripzioa

- Oin jo eitten zien, sasoe honetan gari-jotzia. Oin bi urte hamen garixa gure suinak ipiñi zeban. Hori da muestria, hori laga giñuan etxian. Beran gurasuen etxian, beran gurasuen etxian kapritxua euki zaban, eta [Anelgar] horrek eta kanpaiña bat propagandia eitteko ba zerbaitt diferentia ein bihar zala. Eta ba garixa erein azaruan ein zeban, eta gero garixa heldu zanian anunziau ein zeban, periodikuetan eta danian anunziau zan. Eta etorri zian, Euskal Telebistakuak eta etorri zian hartzera, eta han egon zian danak, eta eguna ipinitta zeuan igande bat, eta ein zan lehenengo ieteixakin, batzuk ebaitzen, ieteixakin ebaitzen; gero segadoria, azkenaldera, bueno, segiakin. Hiru modutara ein zan aprobia, Jentia ikusi daixen nola eitten zan. Lehenengo ieteixakin, lehenao itten zan moduan; gero segiai akoplau eskobaria, ya batu daixen, ebagitzen dabena puxkat batuta geratu daiñ lotzeko garixa. Zeatik eze lehen lotu ein bihar izeten zan ieteixakin hartu hola, eta bi eskukarakin edo..., bai, esku ona zeukanak bi eskukarakin itten zeban azaua esaten jakona. Eskukaria hartu eta ipintzen zan ziharka hola. Ipintzen zan ziharka, bigarrena bota; eta gero atzetik, jeneralian emakumiak itten zeuben lan hori, azauak lotu. Garixai berai etenak, etekiñak kendu hiru-lau bat, eta harekin lotu. Gero harek bentajia eukitzen zeban ba garixa pillatzeko, metatzeko, metatu bihar izeten zan, zegaittik eze gari-jotia ba soziedadiak zeren. Honek esan dabena ez, honek gutxi nola hartzen zeuben, ez zeuken makinaik. Zegatik eze makinak be pagau in bihar zien. Eta soziedadiak zeren, gure auzuan be bi soziedade zeren.

16. Gari-ebakitzearen inguruko azalpenak; lexikoa

- **Erref:** ANT-064/003
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:03:45. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Auzoan garia jotzeko makina zuten bi sozietate zeuden. Garia ebaki ondoren zertxobait lurrean lagatzea komeni izaten zen. "Mutxurra". Ondoren metatu egiten zen. Belarra eta garoarekin ere metak egiten ziren.

Transkripzioa

-Zegaittik eze gari-jotia ba soziedadiak zeren. Honek esan dabena ez, honek gutxi nola hartzen zeuben, ez zeuken makinaik. Zegatik eze makinak be pagau in bihar zien. Eta soziedadiak zeren, gure auzuan be bi soziedade zeren makinakin. Eta hasten zan lehenengo gorengo basarrixan eta gero goittik behera. Eta hurrengo urtian behian egoten zien makinak, ba behetik gora hurrengo urtian. Baiña danak..., garixa puskat metan, gaiñera, mejourau itten zan egoten, egun batzutan asentau itten zan.

-Azauetan lotuta gero...
-Bai, hola ipintzen zien.
-Lurrian ez zien lagatzen?
-Ez. Lurrian lagatzen zan puxkat sekatu artian.
-Hori ze izaten zan, ordu batzuk edo?
-Segun denporia zelakua zan. Baitta hondatu be bai. Denporia txarra, holakotxe lanbrua jo eta bustixa ezin da jaso, eta baitta hondatu be baten in jakuen, bertan erne, lurrian erne, jasotzeko asti barik. Urte baten akordatzan naiz ni, erne ein jakuen batzuei. Gurian pillautu zeren, baiña gurian be meta-puntak puxkat berdatu zien, e. Zeaitik eze itten zan, mutxurra esaten jakon lehenengo. Lehenengo bi ipintzen die hola, gero beste bi bestekaldera, kruzauaz, eta gero ya hasten da illaria, illaria formal, ipiñi ta ipiñi illaria, eta buelta dezentia hartzen dabenian, ba diametrua bi metro inguru hartzen dabenian edo, ba ya goraoko illaran hasten zan. Ba hogeta hamar bat zentimetro gorauan berriro, gorauan ipiñi beste illara bat. Gero hirugarren illaria beste hogeta hamar zentimetro gorauan ipiñi. Eta hola juten zan ba norberak ondo harrapau arte. Metiak hartuko zittuan hiru metro igual alturia, metiak esaten jakonak. Bittik gora behintzet danak. Batzuk haundixauak eta beste batzuk txikixauak. Metia ba, bedarrakin be metia itten zan, garuakin be metia itten zan. Eta garixakin'e bai. Lehenengo metatu.

17. Gari-metak eta mutxurrak

- **Erref:** ANT-064/004
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Mutxurrak noiz egiten ziren. Meta bat egiteko girorik edo nahikoa gari ez zegoenean egiten zen. Gari-meta, etxe inguruan egiten ahalegintzen ziren, gerora begira lana errazteko.

Transkripzioa

-Eta esaten dozunian mutxurra eitten zala, hori zeri esaten dotsazue?
-Mutxurra eittia zan ba igual segurantziaik ez dauenian eta; metia eitteko nahikua gari ez eta girua be ez. Eta lurrian, bildurraikin, lurrian ez daixela behintzet harrapau; eta lelengo mutxurrak ein. Kaskarakin-eta iñoiz mutikuak ikusten zebe, kaskarak alkarri ipiñi. Gero... Lehenengo hontara, gero hola kruzauan, ezta. Danak bueltan, burua danak leku batera; han goixan bueltan burua. Behian ipurdiak. Hortara zan, mutxurra lehenengo. Baiña gero pillan, han mutxurrian ba. Batzutan eitten zan mutxurrian eta beste batzutan ez. Zeatik eze segurantzia zeuanian eta mutxurra itten ibilli barik eta garixa girotu dala ikusi, ba segida metia. Metia itten zan eta ahal dala, gaiñera, etxe ingurura arrimau, geroko bentajia euki deixen, bere izatez egun estua izaten zan garijoteko eguna.

18. Gari-jotzearen inguruko azalpenak; lexikoa

- **Erref:** ANT-064/005

- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Gari-jotzea noiz egiten zen, nola. "Matxakia" esaten zitzaion mahaia. "Zendorra". Gari-jotzeko mahaia azpian, "altagarrixa" egoten zen. Umeek lastoa sabaira karriatzen zuten, neguan abereei emateko erabiliko zena.</p>

Transkripzioa

- Han jarraitu in bihar jako makiniai. Han mutillak jartzen dia, bi mutil sartzen, bat alde batian, "matxakia" esaten jakon, eta bestia. Eta harek mahai bat eukitzen dau hortara, aurrian mahai bat. Batek ein bihar izeten zeban, bueno, hortarako sendorrak eruan eta han bota. Bizkarrian eruaten zan; edo bestela leran eruaten bazan be, edo burdixan. Edozein modutan be behintzet etxe inguruan askotan, etxe ingurura eruan eta gero mutillak bat edo bi sendorrakin, bizkarrian eruan eta bota.

- Sendorra zeri esaten dotsazu?

- Sendorra ba, ba makillia gaiñera lotzen ibilli barik, sokiakin lotzen ibilli barik itten zan, ba abar biguna, abar berdian hartu, abar berde hori ipiñi hamen, lurrian bota, eta han erdi inguruan azauak, pillau azauak. Bueno ba, ya nahikua dala pentsautakuan, hartuko zeban beheko puntatik, beste besuakin hartuko eban goiko puntia. Hartu, estutu puxkat, da!, bizkarrera. Eta harek ez zeban eukitzen ez lotzen eta ez soltatzen lanik.

Aillegautakuan, ganbarara aillegautakuan, bla!, pillara. Han zuzen bere posturan ipiñi, zeatik eze bestiak botatzen dabillena kurioso komeni jako lagatzia, hartu, han ez dago berriketan egoteko astirik. Harek hartu eta da! mahaixan ipiñi bihar dau: aldiko bi, ta!, da!, ta!, da! Mahaixak eukitzen dau alturia ba petxu ingurura artekua, gerrittik gora behintzet mahaixan alturia, bai. Eta gero harek, matxakan zebitzenak eukitzen zeban altagarrixa azpian.

- Altagarrixa?

- Altagarrixa ba kaja batzuk, edo anega erdikua edo egoten zien basarritan ba, bat anegia, garixa neurtzekua. Bat anegia esaten jakon, bestia anega erdikua, eta horrek be zerbitzen zezen hortarako. Altagarrixa. Ipiñi alde banatan matxakiai. Eta harekin ein bihar dabe, bi mutil, onenak jarri bihar zien han, han abuentau ein bihar da. Hango hautsa! Bueno! Zeatik eze haura sartu bihar dabe lehenengo postura baten hartu, berak mutillak atzekuak ipinitta bezela hartu postura baten, rau! ra!, hauxe eskuakin eraiñ, da! Buelta erdi emon, drau!, da!, harrika bota bihar dabe harek. Eta gero han, loturan, loturia itten jakonian, geratzen zien buru bat atzian, atzerauan, bestian parera aillegau ezinda, eta orduan ez zan batere garirik galdu bihar, dana aprobeitxau bihar zan, ba ieteixakin, harei botatzen jakuen bi, emakumiak, gizonezkuak, dana dala, emakumia asko ibiltzen zan. Ieteixakin hartu, haura kendu, eta han geratzen zan haura. Eta gero mutikuak ero ibiltzen zian sapaira karriatzen. Lastua, haura ganauendako negurako gordetzen zan.

19. Gari-jotzeak izaten zuen lana

- **Erref:** ANT-064/006

- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:13:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Gari-jotzea; lan gogorra izaten zen. Makinan jarduten zuten gizonei kafea, pontxea edo koparen bat ematen zitzaien, lanean jarrai zezaten. Lan zikina izaten zen; nola garbitzen ziren. Amaitu ondoren, makina hurrengo baserrira eramateko prestatu behar zen. Makinaren "darda-izuak" ganbaran. "Bandixua".</p>

Transkripzioa

- Orduan jari joteko makinan beti ipintzen zien gizonik onenak?
 - Onenak, onenak. Eske... Baiña hautsa! Harek zela geratzen zien ikusi in bihar zan, e! Dana... Hortarako ba kafia eta pontxia esaten jakona, lehen horrek esan dabena, pontxia. Gozatuta edo. Baitta kopia be bai. Harei emuten jakuen ba abuentau deixen. Eta gero bukatutakuan, bueno, bestiak be ahal dana eitten zeban, baiña. Basarritan nola dutxaik ez zeuan, ba emuten jakuen ba izara bana, eta jutun zien ba jeneralien ganauteixaren atzian edo egoten zan lekua hola garua ta. Ta hara jutun zien, emuten jakuen baldetan ura, balde haundi batzuk. Ura emuten jakuen, eta han jaboia edo, eta izara bana. Eta han garbitzen zian harek. Garbittu ta preparau bihar zan makinak kargau ta beste etxera eruateko hurrengo egunerako. Bai, burdittan kargau, lehenengo motorra, zeatik eze gure soziedadia motorra zan astuna motorra be, gasolindun motorra. Beste soziedadiak elektrikua zeukan. Baiña guriak zeuken astuna oso, eta matxakia, berriz, ze esanik ez, harek pixua. Askotan ganbaria be puntaliau itten zan, e! Haren golpia, dardarizuak. Bai, bai. Gure basarrixan be ipintzen jakon puntalia bat porsiakaso, ipintzen jakon ganbariai. Ataixan parian euan eta ataittik puntale bat ipini ta. Bai.
 - Eta gari-jotzia, orduan, nun izaten zan, ganbaran bertan?
 - Ganbaran. Bai, basarri danak dauke. Eske lehen ez zan bandixua, baiña gero hasi zien bandixua derrior komeni zala makinakin eta, eta bandixuak etaratzen hasi zien atiak ba txapitula gora etara teillatua; teillatua, berdin zeuan teillatua ebaki eta jaso teillatua. Eta gogortu puntaliakin eta atia etara, azpitan atia etara ganbareta. Oindio basarri askotan dare. Lehen-lehen ez zeuan /etzeuan/ basarritan hori. Hainbeste nezesidade ez zeuan zeatik eze forrajia be ez zan hainbeste sartzen eta ez jakon /etxakon/ hainbeste inportantzia emoten, baiña gero bai. Gero hori basarri gehixenetan. Eta bandixuan esaten jakon horrek, ba eitten zan hori lan hori, zeatik eze barrurako, abitaziño parerako ta ez zan egokixa izen be hori. Habitaziño parian egoten zan ba artua sikatzen, babak sikatzen, garixa kutxetan. Eta, bueno, baba beltza be asko hartzen zan, gari artian hartzen zan baba beltza be. Eta ixa urte guztian baba beltza edo baba gorrixa egunero jan bihar zan. Eta horrek ba basarri danetan egoten zien.

20. Garia nola jotzen zen makinarik ez zegoenean

- **Erref:** ANT-064/008
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Garai batean garia "malakatian" jotzen zen.

Transkripzioa

-Orduan lehen "malakatian" eitten zala?

-Malakatian itten zala, bai. Eta beorren tiak eukan Bergaan basarrikuak, Bergaan basarri batera ezkondu zan beorren tia bat, aittan arrebia, eta han zeuala eta beorrek hola esanda: ba hamen dao ba alperrik. Eta hori nik entzunda daukatela ba haura bueltan-bueltan zaldixak behian ibili eta engranajien bittartez ba reboluziñua hartzen jutten zan haura, engranaje askokin ba ya belozidadia hartzen zeban. Eta orduan han dauka garixa joteko, malakatian jotzen zeben makinia dauka.

-Makinia orduan soziedadian auzuan bertan.

-Soziedadian, bai, soziedadian zeuan.

21. Garia eguzki-aldean lehenago heltzen zen

- **Erref:** ANT-064/009
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:17:00. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Garia ez zen momentu berdinean heltzen toki guztietan. Eguzki aldean lehenengo; behetik gora.</p>

Transkripzioa

-[...] Garixa toki guztietan momentu bardiñian heltzen da?

-Lelengo-lelengo, hamen Maduria esaten jakon, Bergaan. Began, hor garixa itten zan, Bergan. Oin ya dana edifikauta dao. Baiña hor garixa kale onduan ereitten zan. Batez be Bergako salidan eta euzki-lekuan lehenao heltzen zan garixa hamen baiño. Bai.

-Toki harek ze izen zekan, Maduria?

-Bueno, erderaz da hori. Maduran, esaten giñuan, han garixak koloretu dia, horittu dia, koloretu dia Maduran. Artian hamen San Juanetan-eta puxkat koloria horitzen hasitta, baiña ya San Fermin ingururako ya leku askotan hasten zan; behetik hasten zan jeneralian. Behetik gora euskialdian lehenengo. Baiña, azkenengo basarritan eta, gero hor oin Pikunitta esan jakona badao, Antzuelako azkenengo basarri bat. Ba hango mutillak batzuk jorialian ibiltzen zien eta bestela. Eta gero ba, ni neu ez, baina gure anaia be jutten zan. Geurea be etortzen zien garixa ebaitzera laguntzera eta gero ordiaz herena parera etorritakuan hara garixak ittera. Baiña han bai, han egun batzun aldia eukitzen zeban garixak; beranduaio heltzen zan. Bai. Garixandako paraje nahiko altua zan, gari ona hartzeko paraje epela bihar dau. Bai.

22. Gari-jotzearen inguruko azalpenak; lexikoa

- **Erref:** ANT-064/010
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Gari-jotzearen inguruko azalpenak. Aleak makinaren azpikaldean gelditzen ziren. Makina desberdinak (gasolinazkoa; elektrikoa); ezaugarri desberdinak. Galbaheak. Zurezko eskubara; dornua, gari-garbitzeko makina. Gari-aleak kutxetan sartzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Esaten dozu garixa jotzeko egun hori gogorra izaten zala.
- Bai.
- Eta gari joteko makiñan aliak alde batera geratuko zian?
- Azpira, matxakian azpira alia jutzen zan.
- Eta lastua?
- Lastua botatzen zeban atzera?
- Atzera gari jotzeko makinan zeuan gizonak?
- Bueno, ez. Lastua hamengo makinakin eta hamen zeuan indarrakin dana aurrera ezin zan pasau. Garixa aprobetxatzia zan kustiñua. Gero etorri zian ba indar haundikuak eta. Dana, oin Kastillatik etortzen dan moduan ba dana tritaurata. Eta gero-gero banakan bat. Baiña ya belaxe akabau zien kontu horrek, ereittiai laga jakon. Baiña hamen zan garixa aprobetxatzia. Eta horrek makina horrek ba motorrak be ez zeukan indar gehixegi, guriak, gasolinduna; bestiak elektrikuak, ur gutxi zeuken errotan eta ez jakuen / etxakuen/ komeni... Garixa ahal dan onduen sikatu, metatik zabaldu eta euki. Denporian segurantzia bihar da. Denpora ona ez badator /ezpadator/ ezin da zabaldu. Zeatik eze euririk bildurra baldin badao, hondatzera jun leike. Eta denporian segurantzia dauanian, ba zabaldu. Eta gero igertutakuan orduan oso erre; iger-ger eindda dauanian, lehen esan dotena, golpe bat, golpe bat. Erabat bigarren golpian ia kendutzen zan dana. Atzian zeren horrek ez, ostiengua dana. Han jutzen zan lasto puxkia, ez zan lasto asko baiña bai, harek zeuzkan galbahiak esaten jakuenak mobimentuan, harek botatzen zeuben lastua atzera, baiña garixa botatzen zeuben azpira. Eta gero azpittik palarrakin edo kendu itten zan. Palarra baiño eskobara planua izaten zan hobeto. Palarra, burdiña baiño zurezkua. Zurezko eskobaria, oinddio badao gurian, hortzak luziak. Belarra batzekuak ba hortzak ez dittue haundixak eukitzen. Baiña hortarako eukitzen zittuen hortzak luziauak. Eta buru planua. Buru planuarekin ba garixa alde batera eruaten zan baztarrera, eruaten zan. Eta han jutzen zan lastua banakia, gero hortzekin puxkat kentzen jutzen zan. Gero matxakiai lan gutxiao izatearren lastoik haundiñak kenduta behintzet; gero matxakan pasau bihar zan. Dornuan, dornua da gero pasatzen dana.
- Dornua zertarako?
- Dornua ba hantxe dao errotan dornua be. Harek be itten zeban, palak dauzka. Dornuak ba, eraitten jakon engrane batzun bittartez eta barruan euzkan ba bonbo bat, eta bonbo hortan zeren ba palak. Ba partiduta, bere distantzietan partiduta, nahiz ura mobitzeko ibiltzen dien bezela errotetan eta. Hori izeten zan garixa, goixan kaja bat eukitzen zeban. Goixan kaja haura bete eta eukitzen zeban tranpa bat bittartiakin. Tranpa haura puxkat

neurrixa, gehixegi barikneurri baten ya behintzet bere erara gehixei barik jun dailla. Eta berak mobimentua zela eukitzen daben dornuak, don!, don!, don!, hartzeko galbahiak erabiltzen dabe mobimentua, eta haren mobimentuakin korridu eitten dau, zeatik eze fin-fiña, kajia fin-fiña izeten zan, eta aldapan gaiñera, eta han juten da, ba neurrixa bittartia zenbatekua ipintzen jakon, han poliki-poliki, errotan artua-ta juten dan bezelaxe, igual-igual juten zan garixa. Eta ia han garbittu, eta harek bai, harek botatzen zeban garixa zerera, azpira; eta handik ya hortarako anea-erdikua ta jarri belauniko. Bueno, izaria ipintzen zan, izara haundi bat ipini eta garixa hara izaraa aleik banatu ez dain, eta han etorri ahalian kaja hori ipintzen zan doblauta. Eta erdiraiño ahal dan guztia betetakuan, ahal dan gari gehixenakin lagunduaz jaso. Eta gero hartu haura eta zakutan edo bestela kutxara. Jeneralian zakutan sartzen zan eta gero kutxara eruan. Zegaitik eze kutxak ez zeren, haura momentuan haura be eittia komeni izeten zan martxa baten eruateko. Eta jeneralian bertan zakuak bete edo itten zan, eta gero biher dan destinua emon garixai.

23. Garia ereiteari noiz utzi zitzaion

- **Erref:** ANT-064/011
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:24:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gariak lan asko zuen; noiz utzi zitzaion ereiteari.

Transkripzioa

-Lan asko zeukan garixak, ez?
-Bai, lan asko, horregatik, eneee! Akabau zan eta bakia. Pufff!
-Gutxi gorabehera ze urtetan kalkulatzen dozu amaittu zala edo ia laga jakola garixa ereittiari?
-Ba, berrogeta hamarrerako bai lagako jakon hamen, cincuentarako, garixa ereittiai.
-Eta bakia, ez?
-Bai, bakia. Bueno, berogetamar igual ez. Bai, batzutan. Eske danak batera ez zotsen laga. Batzun batzuk bai, baiña. Ez geruao be batzuk segidu zebe, e.
-Baiña gutxi gorabehera sesenta...
-Bai, hortxe ibiliko zan.

24. Gari klaseak

- **Erref:** ANT-064/012
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari klase desberdinak. Bertako gariaren ezaugarriak.

Transkripzioa

-Gari-hazi diferentia egoten zian, klase diferentia?

-Bai. Lelengo bertakua dana. Gero kanpotik be etortzen zan, "goiz-garixa" dala eta. Hau kanpokua da, hemen bertako garixak ez zeukan /etzeukan/, honek bizarra dauka. Lehengo bertakuak bizarrik ez zeukan.

-Bizarra esaten dotsazu?

-Bizarra, horri ikutzen bajatzu latza dauka. Lehenguak ez zeukan bizar hori. Baiña harek be ba eukitzen zeban, lasto haundixa itten zeban eta makaldu igual itten zan, busti asko jo ezkerro hala be, makaldu eta jausi igual itten zan. Eta jausi ezkerro ez zeban ale..., alia ez zan ondo betetzen; okerra ekartzen zeban. Una batzutan behintzet jausi eitten zan. Eta gero sortu zan hau gogorraua. Lastua be puxkat gogorraua, eta goizago, puxkat lehenao heldu be batzutan-eta itten zan.

25. Gari klaseak; lexikoa

- **Erref:** ANT-064/013
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:26:00. **Bukatu:** 00:27:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Gerraostean, "goizgaria" etorri zen; lehenago heltzen zen. "Xikirixua", beste gari klase bat; ez zen jateko erabiltzen. "Xikirixo-lastua".</p>

Transkripzioa

-Entzunda dakat gerra ostian beste gari klase diferente bat etorri zala.

-Bai. Goizgarixa gerra ostian etorri zan. Orduan etorri zan goizgarixa. Bai, zeatik eze edurra ein zebanian be ya burututa zeren maiatzan lehenenguan. Bai. Baiña aurretik bestia ez zan hain goizao horitzen.

Orduan goizgarixa etorri berri zeuan. Eta orduan batzuk ereitten zeuben lehengua eta guztira ibiltzen zan jentia. Baiña aurretik, aurretik guk basarrixan ez. Eta zikirixua esaten jakona, zikirixo lastua zan, ba silla-ipurdiak lastozkuak zien, eta silla-ipurdiak lastuakin ba apurtu eitten zien beti be, eta basarritan-eta etxian arreglatzen zien asko silla-ipurdiak, eta honen lastua baiño gogorraua dala, eta batzuk zikirixua ereitten zeuben, baiña haura gero ba ez zan, jateko ez zan erabiltzen. Bastua zan. Gari klase haura oso bastua zan. Lastuagatik batzuk, baiña ya hori nere denborarako ya galtzen jun zan, e. Bai. Gure basarrixan ez zan sekula ereiñ zikirixoik.

26. Gariarekin zerikusia zuten usadio edo ohitura zaharrak: galafaria

- **Erref:** ANT-064/014
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:27:25. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

<p>Garia erein ostean "galafaria" egiten zen. Zer jaten zuten horrelako afarietan. Jatekoa; ortuan lan gutxi egiten zen. Patata gorria; patata beltza (egosten zenean, "zukutu" egiten zen).</p>

27. Arto klaseak

- **Erref:** ANT-064/015
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:32:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Arto klase desberdinak: hibridoa (gogorragoa; kerten sendoagoa). Baba, arto artean hartzen zen. Aurreko arto klasea, makalagoa; alea finagoa, baina txikiagoa.</p>

28. Bizikletarekin lanera

- **Erref:** ANT-064/026
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:01:10. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Bizikletarekin lanera. Lan-ordutegia. 12 urtetan arotzeria lanean jardun ondoren, Altos Hornosen hasi zen lanean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com